

# Oiartzun

OIARTZUN EZAGUTZEKO PREST?



Egileak:

Talde-taldea

LH5B



Ikastolen Elkartea

# Oiartzun gozatu

Gorritxo



## Aurkezpena

Kaixo, lagunok! Ni **GORRITXO** naiz. Beti eduki izan dut jakinmin puntu bat. Nire ametsa Euskal Herritik atera eta mundua ezagutzea da. Herrialdeak, kulturak, elikagai berriak, ...ezagutu nahi ditut.

Ongi etorri gure herrira!

Nahi al duzue egun zoragarri bat pasatu nire herriaren altxorak ezagutuz?

## Presentación

# Oiartzun begirada batean

## Kokapena

Oiartzun Euskal Herriko Ipar-Ekialdean dagoen herri bat da, Gipuzkoan dago, Oarsoaldea eskualdean. Herri honen mugakideak Lezo, Irun, Orereta, Lesaka eta Goizueta dira.

## Erliebe-elementuak

Oiartzun haran bat da. Bertan mendiak, ibaiak,... daude.

## Bestelako informazioa

Oiartzunen ospakizun berezi bat egiten da. Ihoteak dira. Sorgin, basandre eta intxixuak plazara jaisten dira inauterien aurreko ostiralean eta festa handi bat egiten da. Larunbatean kuestazioa egiten da, baserriz baserri janari eske ibiltzen dira. Igandean intxixuak, basandreak eta sorginak joan egiten dira.



# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## Aiako Harria parke naturala



Aiako Harria parke naturalak 6.913 hektarea ditu. Aiako Harriaz gain, tontor hauek ere osatzen dute Aiako Harria parke naturala: Zaria, Bunanagirre, Bianditz, Errenga, Irupagoeta, Erlaitz, Pagogaña eta Aldura. Landare aldetik oso anitza da, hauek dira bertan topa ditzakegun landareak: haltz beltza, lizar arrunta, haritz arrunta, haritz amerikarra, ametza, gaztainondoa, sasiakazia, intsinis pinua, gorostia, hurrondoa, sahats auskara, elorri zuria, elorri beltza eta pagoa.

Animali espezie asko ditu, hauek dira: sai arrea, arrano txikia, arrano sugezalea, belatxinga mokogorria, basurdea, orkatza, azkonarra, basakatua, zirauna, sugedorri kantabriarra, eskailera-sugea, arrabioa, apo arrunta, baso-igel gorria, ezkailua, amuarrain arrunta eta izokina.

Irun, Errenteria, Oiartzun, Donostia eta Hernaniko lurrak hartzen ditu.

# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## Arditurri



Arditurri Oiartzunen dago, Ergoien auzoan, Aiako Harriaren inguruan. Arditurrin meategiak daude eta erromatar garaitik daude han.

Arditurriko meategietan lan egiten zuten erromatarrek zilarra ateratzen zuten, Erdi Aroan burdina atera zuten.

Gaur egun, museo bat da eta meategiak ikustera joan zaitezke.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## San Esteban eliza



San Esteban eliza Gipuzkoan dago, Oñartzun herrian eta Elizalde auzoan. 1629-1643. urteen bitartean egin zuten Juan Huitzi eta Gaspa Ramos nafarrek erretaula. Erremateak Oñartzungo Sebastian Lekuonak eta Jose Zuaznabarrek egin zituzten. Irudiak bi garai desberdinetan egin ziren. Erainkuntza osoa XVII. mendean egin zen.

Erligio katolikoa du eta Donostiako elizbarruan dago. Estilo gotikoa eta barrokoa ditu. Eliza hiru kanpai dituelako da ezaguna. Elizan urrezko txanponak eta urrea aurkitu zituzten.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


## Hilerria



Oiartzungo hilerria Oiartzungo Elizalde auzoan dago eta han ehortzen dira Oiartzuarrak. Hilerri honetan gudarien omenezko monumentua dago, Luis Peña Gantxegik egin zuen 1977an eta 1936ko Gerra Zibilean hildakoen omenezko monumentua da.

Hilerriaren aurrean idi-dema aurki dezakezu eta baita Sutar eskultura ere. Sutar eskulturak mairubaratzak irudikatu nahi ditu, Anton Mendizabalek egin zuen, lekua majikoa bezala identifikatzen zuen eta bertara gerturatzen zena berenganatu egiten dituela.

# Zirkuituaren mapa



## Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga





# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa



○ Abiapuntutik lehen interesgunera joateko:

### Deskribapena

**Oiartzungo erdigunean dagoen autobus geltokian hasiko dugu ibilbidea. Donibane kaletik behera joango gara eta eskuinaldean Done Eztebe eliza aurkituko dugu.**

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa



Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko:

### Deskribapena

Elizatik itzuli zaitez Donibane kalera eta eskuinera eginez gero, Done Eztebe plaza aurkituko duzu. Hori zeharkatu eta eskuinera joan, Rafael Pikabea hiribidetik aurrera joan biribilgune bat aurkitu arte. Hirugarren irteeratik aterata Sibeluts kaletik aurrera joanda hilerria aurkituko dugu. Hori da gure hurrengo interesgunea.

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko:

### Deskribapena

Hilerria eskuinean dugula, Sibeluts kalea hartu eta jarraitu aurrera, hurrengo bidegurutzean ezkerretara hartu eta segi biribilgune bat aurkitu arte. Biribilgunean lehenengo irteera hartu eta Elorrondo kalean aurrera segi beste biribilgune bat aurkitu arte. Biribilgunetik 2,9 km-tara bidea jarraituz Aiako Harria Parke Naturaleko sarrerara iritsiko gara, hori da hirugarren interesgunea.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko:

### Deskribapena

**Aurrera jarraitu Lesakako bidetik lehenengo bidegurutzera arte, eta han hartu Arditurri bidea zuzen-zuzen aparkaleku bat ikusi arte. Aparkatu autoa eta jarraitu oinez aurrera meategi batzuk ikusi arte, iritsi gara laugarren interesgunera.**

## Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Laugarren interesgunetik helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da):

### Deskribapena

**Itzultzeko, egin atzera etorri garen bide berdinetik Bidegaina kaleraino, egin aurrera bidegurutze bat topatu arte eta han egin eskuinera eta, ondoren, ezkerrera Gurutze bidea hartzeko. Gurutze bidean egin aurrera semaforo bat aurkitu arte, semaforoaren ezkerrean egongo da eliza.**

# Bisitarientzako gomendioak

Ez zikindu ingurunea.

Ez ezazu bota zaborra lurrera.

No hagas mucho ruido.

Cruza siempre por un paso de cebra.

If you see some nice flowers do not pick them.

Do not sit on the historic monuments.